

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Goicoechea kontseilariak energiaren ekonomiari buruzko biltzar batean parte hartu du, Iruñean

Nafarroa, duela hiru urtetik, Europar Batasunak 2020rako ezarri zuen helburua betetzen ari da, hau da, erabiltzen den energiaren % 20 gutxienez iturri berriztagarrietatik lortzea

Jueves, 26 de enero de 2012

Lourdes Goicoechea Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen kontseilariak [Energiaren](#) [Ekonomiaren](#) [Espainiako Elkartearen](#) VII. Biltzarraren irekiera-ekitaldian parte hartu du gaur goizean, Iruñeko Baluarte Biltzar Jauregi eta Auditorioan. Topaketaren irekiera-ekitaldian Alfonso Carlosena Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketako errektoreordeak,



Goicoechea kontseilaria Energiaren Ekonomiaren Espainiako Elkartearen VII. Biltzarreko buruen mahaian

Gonzalo Sáenz de Miera Energiaren Ekonomiaren Espainiako Elkartearen presidentea eta Ignacio Contín biltzarreko batzorde antolatzailearen burua ere parte hartu dute. Biltzarrera Espainia osoko energiaren sektoreko ehun bat profesional joaten da.

Mintzaldian, Goicoechea kontseilariak energiaren sektoreak, bereziki energia berriztagarrien sustapenari esker, azken hogeitun urteetan Nafarroan eman den "eraldaketa izugarria" aipatu du. Azken 15 urteetan 5.000 lanpostu sortu ditu. Goicoecheak "energiaren fakturak ekonomian duen garrantzia" aipatu du. Horri lotuta, kontseilariak esan du 2010ean energiaren gastua 1.942 milioi eurokoa izan zela, hau da, Nafarroako barne produktu gordinaren % 10. Bestalde, iturri berriztagarrien eta baterako sorkuntzaren bidez sortutako elektrizitatea saltzeak 468 milioi euro ekarri zituen (eskualdeko BPGren % 2,4).

Lourdes Goicoecheak Nafarroako Energiaren I. eta II. Planen emaitzen balorazioa egin du 2010eko azken balantzearen arabera, eta azpimarratu du, datuen arabera, "Nafarroan energia aurrezteko neurriak oso eragin positiboa izaten ari direla" eta energia berriztagarriak energiaren kontsumo osoan geroz eta garrantzi handiagoa lortzen ari direla. Zehazki, Nafarroa, duela hiru urtetik, Europar Batasunak 2020rako ezarri zuen helburua betetzen ari dela esan du, hau da, erabiltzen den

energiaren % 20 gutxienez iturri berriztagarrietatik lortzea. Kuota hori % 80ra handitzen da iturri berriztagarrietatik lortzen den elektrizitatea kontsumitzen denarekin lotuz gero.

Amaitzeko, kontseilariak [2020rako Nafarroako III. Energia Planaren](#) helburu batzuk azaldu ditu. Planaren helburua energiaren kontsumoa % 16 murriztea da eta, horretarako, "energiaren kontu-ikuskapenekin jarraitzea eta plan eraginkorrak abian jartzea proposatzen du industriaren sektoreko lehiakortasun-elementu eta etxeetan aurrezteko neurri gisa". Horrez gain, banakoen eta taldeko ibilgailu elektrikoak sustatzea ere helburuetako bat da.

Planean energia garraiatzeko azpiegituretan inbertsioak egitea ere barne hartu da. Horretarako, Goicoecheak esan duenez, Nafarroako Gobernuak sektoreko enpresarik garrantzitsuenekin hainbat konpromiso egitea lortu du.